LA ANUNCIATAREN DEFENTSAN! GURE LANPOSTUEN DEFENTSAN!

Otsailaren 19an, 16:45etan manifestazioa ikastetxearen ataritik hasita!

La Anunciata Ikastetxeko langileok, ELA sindikatuaren laguntzarekin, mobilizazio eta grebei ekin diegu gure lanpostu eta lan-baldintzak defendatu eta ikastetxearen itxieraren salatzeko.

Ia 90 urtez zabalik egon ondoren, pasa den urtarrilaren 29 ikastetxea isteko asmoaren berri eman zuen ikastetxearen titularra den Francisco Coll Fundazioak.

Aldebakarreko erabaki horrek 30 langile ingururen lanpostuak kolokan jarri ditu. Horrez gain, hamarnaka ikasle eta familia ere kaltetu ditu, egun batetik bestera haur eta gazteen ikasketa-prozesua ikastetxean jarraitzeko aukera zapuztu baitzaie.

Langileok azpimarratu nahi dugu urtarrilaren 29aren aurretik ez genuela inolako informazio edo argibiderik jaso. Langileen ordezkariekin ere ez zen inolako elkarrizketa edota negoziaziorik gauzatu. Gainera, ikasturte honen amaieran ikastetxea isteko erabakia matrikulazio epearen aurretik hartu da. Hurrengo urtean ikaslerik ez izateko erabakia enpresak berak hartu du, hortaz.

Kaleratze kolektiboaren prozesua hurrengo egunetan hasiko da eta kurtsoaren amaieran denok kaleratuak izango garenaren susmoa dugu. Egoera horren aurrean gure desadostasun eta ezinegona azalerartu nahi ditugu eta horretarako zenbait mobilizazio eta ekimen antolatu ditugu hurrengo egunetarako: otsailaren 19an manifestazioa 16.45etan eta otsailaren 24 eta 26 arten 3 greba egun.

Une gogor hauetan ikastetxeko komunitatearen eta auzoko herrikideen elkartasuna eta bultzada beharko ditugu. Hortaz, hurrengo egunetan antolatutako ekimenetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Eskertuta: La Anunciatako langileak.

¡EN DEFENSA DE LA ANUNCIATA! ¡EN DEFENSA DE NUESTROS PUESTOS DE TRABAJO!

El 19 de febrero, a las 16:45, manifestación desde la puerta del colegio

Las trabajadoras y trabajadores de La Anunciata Ikastetxea, con la ayuda del sindicato ELA, hemos iniciado movilizaciones y huelgas para defender nuestros puestos de trabajo y denunciar el cierre del centro.

Tras casi 90 años de funcionamiento, el pasado 29 de enero la Fundación Educativa Francisco Coll, titular del centro, anunció su intención de cerrar el colegio.

Esta decisión unilateral ha puesto en jaque los puestos de trabajo de unos 30 personas. Además, ha perjudicado a decenas de alumnos/as y familias que de un día para otro han visto frustrada su permanencia en el centro.

Las trabajadoras y trabajadores queremos subrayar que antes del 29 de enero no recibimos ningún tipo de información o aclaración. Tampoco se llevó a cabo ningún diálogo y/o negociación con los representantes de los/as trabajadores/as. Además, la decisión de cerrar el centro al final de este curso se ha tomado antes del plazo de matriculación, por lo que la decisión de no tener alumnos el año que viene la toma la propia empresa.

El proceso de despido colectivo comenzará en los próximos días y sospechamos que al final del curso todos seremos despedidos. Ante esta situación queremos hacer aflorar nuestro desacuerdo y nuestra inquietud y para ello hemos organizado varias movilizaciones y actividades para los próximos días: 19 de febrero manifestación a las 16.45 horas y 3 jornadas de huelga del 24 al 26 de febrero.

En estos duros momentos necesitaremos la solidaridad y el impulso de la comunidad escolar y de los vecinos y vecinas del barrio. Por ello, os animamos a participar en las movilizaciones que se organicen durante los próximos días.

Att. Trabajadores de La Anunciata.